

Gure proiektua **Fast Time** izeneko scanner dentala da, **Full Scanner** enpresak garatua. Izen hori hautatu dugu hortz-klinika batean **denbora aurrezteko** duen gaitasuna dela eta, baita hainbat funtzio aurreratu integratzen dituelako ere. Besteak beste, gaur egungo scanner dental modernoek eskaintzen dituzten ezaugarri guztiak betetzen ditu: ahoaren 3D irudi digital zehatzak sortzen ditu, eta lortutako datuen bidez koroak, zubiak, protesiak eta ortodontziako tratamenduak diseinatu daitezke, zehaztasun handiagoz eta denbora gutxiagoan.

Horrez gain, gureak **odontograma** automatikoki betetzeko gaitasuna du, beste funtzioen artean. Behar bereziak dituzten pertsonentzat, hortz-klinikan izandako esperientzia erosoagoa eta atseginagoa izango da, eta tratamenduak modu **azkar** eta **eraginkorrean** gauzatu ahal izango dira.